

6. DOKUMENTUA

EKONOMIA ETA FINANTZA ARLOKO BIDERAGARRITASUN AZTERKETA

**ERREENTERIAKO HAPOrén 3. ALDAKETA PUNTUALA, 57.
SEKTOREA (PERUTXENE-SAGASTI) 2/2006 LEGEAK
EZARRITAKO GUTXIENENKO ERAIKIGARRITASUNERA
EGOKITZEARI BURUZKOA
- ERREENTERIA -**

**EKONOMIA ETA FINANTZA ARLOKO BIDERAGARRITASUN
AZTERKETA**

1.- GALDAGARRITASUNA ETA EDUKIA

Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 62. artikuluan, Plan Orokorraren Dokumentazioari dagokionean, adierazita dago Ekonomia eta finantza arloko bideragarritasun azterketa eransteko beharra. Azterketa horrek ebaluatu beharko ditu Sektorearen planeamendua garatzeko beharrezkoak diren urbanizazio eta zerbitzuak ezartzearen gaineko gastuak.

Dokumentu honek betetzen ditu arauak ezarritako eskakizunak eta proposatutako hiri mailako programaren ekonomia- eta finantza-bideragarritasunari buruzko datu esanguratsuez dago osaturik.

2.- ZEHAZTE MAILA

Egiturazko antolamendu eta antolamendu xehatuko dokumentu honek ematen ditu antolamendu xehatuko planeamenduko dokumentu bati dagokion zehaztasunez eginiko estimazioak. Horiek kalkulatzeko kontuan hartu dira egun indarrean dauden prezioen estimazioak.

3.- BALIOAK ETA PREZIOAK

Urbanizazio obren burutzapenari buruzko ebaluazio ekonomikoa behar bezala bereizi da, dokumentu honetan hartutako erabakien arabera.

Burutzapen gastuak finkatzean kontuan hartu dira dokumentu honen garaian indarrean daudenak. Zalantzarik gabe, gastu horiek egokitu beharko zaizkie langileen, materialen, gastu orokorren eta gainerako kontzeptu konputagarrien prezioek izan dezaketzen gorabehereri.

4.- ZERBITZUAK EZARTZEAREN ETA URBANIZAZIOA BURUTZEAREN EBALUAZIO EKONOMIKOA

4.1.- KALTE-ORDAINAK

Azterketa honetan ez dira aintzakotzat hartu afekzioen ondoriozko kalte-ordainak. Hala eta guztiz ere, horri dagokion onurak eta kargak ekitatez banatzeko Birzatatze Proiektuak zehatz-mehatz aztertuko ditu idazteko unean indarrean dauden baldintza fisiko nahiz juridikoak eta, ondorioz, ebaluazio horren beharra ezarriko du (Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 42., 43. eta 44. artikuluen arabera).

Azterketa honen xedea kontuan harturik, estimazio horrek izaera orientatzaile soila izango du eta horrenbestez, fase honetan ez ditu lotesten ez Administrazioa, ez herritarrak. Hori dela eta era xehatua definitu beharko da Birzatatze Proiektuan.

4.2.- AURREKONTU ESTIMAZIOA

Jarraian zehaztu dira 2/2006 Legearen 147. artikuluan garatutako kontzeptuei dagozkien urbanizazio gastuei eta Sektorea garatzeko beharrezkoak diren gastu guztiei buruzko estimazio ekonomikoaren balorazioa.

Argibideak:

C bidea eraikitzeko adjudikazioa duen enpresaren (LKS) estimazioan emandako adierazpenez gain, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ez dira zenbatu Bidegiko ibarbidean egingo diren lur-mugimenduak, ezta fabrika-obrak nahiz hormak ere, bigarren ingurabidearen obrei dagozkielako.
- Ez dira gogoan hartu gasbide sareetako desbideratzeak, Añarbeko sareak nahiz Goi Tentsioko sarea lurperatzea, lan horiek bigarren ingurabidearen obrei dagozkielako.
- Aintzakotzat hartu behar da aurrekontua estimazio soilak eta orientatzailea baino ez dela.
- Estimazio hau, “obrak” partida garrantzitsu batzuk zehatz dezakeen Azterlan Geoteknikorik gabe egin da.
- Ez dira erantsi Segurtasun eta Osasunaren Koordinazioari dagozkion zerbitzu-sariak.

-AURREKONTUAREN LABURPENA-

• I. KAPITULUA: ARANGUREN BIDEA- 1. ETAPA (LKSren balorazioa)	2.295.000
• II. KAPITULUA: A BIDEA URBANIZATZEKO OBRAK – 2. ETAPA	4.320.000
• III. KAPITULUA: PLAZA URBANIZATZEKO OBRAK – 3. ETAPA.....	1.653.000
• IV. KAPITULUA: ARANGUREN BIDEA, HEGOALDEA - 4. ETAPA	813.000
• V. KAPITULUA: B BIDEA URBANIZATZEKO OBRAK – 5. ETAPA.....	1.718.000
• VI. KAPITULUA: GI-3672 ERREPIDEA, BIRIBILGUNE ARTEAN, URBANIZATZEKO OBRAK – 6. ETAPA.....	224.000
• VII. KAPITULUA: BERDEGUNEA – 9. ETAPA.....	420.000

Kontrata bidez burutzeko aurrekontua.....	11.443.000
Segurtasuna eta osasuna.....	343.290

Kontrata bidez burutzeko aurrekontua, guztira.....	11.786.290
BEZ (%16).....	1.885.806,40

OBREN AURREKONTUA, GUZTIRA.....	13.672.096,40
• VIII. KAPITULUA: HAPOren ALDAKETA, SEKTOREAREN ANTOLAMENDU XEHATUA, BIRZATITZE PROIEKTUA ETA URBANIZAZIO PROIEKTUA IDAZTEAREN ORDAINSARIAK(BEZ barne).....	167.322 €
- BIRZATITZE PROIEKTUA (BEZ barne).....	53.682 €
- URBANIZAZIO OBREN PROIEKTUA ETA ZUZENDARITZA (BEZ barne).....	663.694 €
KAPITULUAK ETA ORDAINSARIAK, GUZTIRA	14.556.794,40 €

• I. KAPITULUA: C BIDEA URBANIZATZEKO OBRAK (LKSren balorazioa). 1. ETAPA

(Ikus ERANSKINA)

Bide sarea burutzea2.295.000 €**• II. KAPITULUA: A BIDEA URBANIZATZEKO OBRAK.- 2. ETAPA**

Lur-mugimenduak	718.000 €
Fabrika-obrak	1.514.000 €
Zoladura-obrak + Zerbitzuak	1.272.000 €
Eraispen-obrak	95.000 €
Zortasunak eta Eragindako zerbitzuak	144.000 €
Aurreikusi gabeko gastuak eta bestelakoak	190.000 €
Lurzatien aurreko hormak	387.000 €

A BIDEA Kontrata bidez burutzeko Aurrekontua, Guztira..... 4.320.000 €**• III. KAPITULUA: PLAZA URBANIZATZEKO OBRAK.- 3. ETAPA**

Lur-mugimenduak	179.000 €
Fabrika-obrak	121.000 €
Zoladura-obrak + Zerbitzuak	537.000 €
Pilotalekua	382.000 €
Eraispen-obrak	24.000 €
Zortasunak eta Eragindako zerbitzuak	37.000 €
Aurreikusi gabeko gastuak eta bestelakoak	47.000 €
Lurzatien aurreko hormak	140.000 €
Berdegunea	186.000 €

PLAZA Kontrata bidez burutzeko Aurrekontua, Guztira..... 1.653.000 €**• IV. KAPITULUA: ARANGUREN BIDEAREN HEGOALDEA. 4. ETAPA**

Lur-mugimenduak	277.000 €
Fabrika-obrak	252.000 €
Eraispen-obrak	20.000 €
Zortasunak eta Eragindako zerbitzuak	29.000 €
Lurzatien aurreko hormak	140.000 €
Aurreikusi gabeko gastuak eta bestelakoak	49.000 €
Berdegunea	46.000 €

Aranguren Bidea Kontrata bidez burutzeko Aurrekontua, Guztira.... 813.000 €

• V. KAPITULUA: B BIDEA URBANIZATZEKO OBRAK.- 5. ETAPA

Lur-mugimenduak.....	280.000 €
Fabrika-obrak.....	149.000 €
Zoladura-obrak + Zerbitzuak.....	453.000 €
Aurreikusi gabeko gastuak eta bestelakoak.....	84.000 €
Lurzatién aurreko hormak	425.000 €
Berdegunea	327.000 €

B BIDEA Kontrata bidez burutzeko Aurrekontua, Guztira..... 1.718.000 €

**• VI. KAPITULUA: GI-3672 ERREPIDEA, BIRIBILGUNE ARTEAN,
URBANIZATZEKO OBRAK – 6. ETAPA**

Zoladura-obrak + Zerbitzuak.....	224.000 €
----------------------------------	-----------

GI-3672 Kontrata bidez burutzeko Aurrekontua, Guztira 224.000 €

• VII. KAPITULUA: BERDEGUNEA. 9. ETAPA

Berdegunea	420.000 €
------------	-----------

BERDEGUNEA Kontrata bidez burutzeko Aurrekontua, Guztira 420.000 €

2008ko urtarrila

Stua.: José M^a Alcorta Azcue

- arkitektoa -

Asesoría y Gestión Técnica LURBEL, S.L. enpresaren izenean